



KAMENKO PAJIC / AP

Alan Greenspan EEBBetako Erreserba Federaletako presidentea (erdian) artxiboko irudi batean.

EEBBetako ekonomia %6,9 hazi zen 1999ko azken hiruhilekoan

Greenspanek interes tasak igoko dituen ustea sendotu egin da

Agentziak / Washington-New York

**Estatu Batuetako ekonomiaren hazkundeak geldiezina dirudi. 1999ko azken hiruhilekoan BPGa %6,9 hazi zen eta urtekoa %4,1ean gelditu zen, aurikuspen guztiak gaindituz. Ondorioz, Erreserba Federalak interes tasak igoko dituela gutxi jartzen du zalantzan. Wall Streeten abegi kontrajarria izan zuen datuak. Dow Jonesek behe-
ra eta Nasdaqak gora egin zuten.**

BARNE kontsumo ikusgarriak eraginda, Estatu Batuetako ekonomiaren emaitzak izugarriak izan dira. Iazko azken hiruhilekoan Barne Produktu Gordinak %6,9ko hazkunde izan zuen, gobernu estatu batuarrek (5,8) eta analistek (6,2) espero zutena baino dezente handiagoa. Kontuan izan behar da gainera, hazkunde nabarmen hau hiru urtetik hona etengabea izan dela 1998an BPG4,3

hazi baitzen eta 1997an %4,5. EEBBetako ekonomiak 107 hilabete daramatza hazten etenik gabe.

Alan Greenspan Erreserba Federaletako presidentearen ustez, ekonomia estatu batuarra gehiegi berotzearen eta inflazioa agertzearen arriskua gero eta agerikoagoa da, lan esku urritasuna, eskaintzarena baino eskariaren hazkunde azkarragoa, eta espekulazio finantzieroa-

ren errentagarritasun altua kontuan hartuta.

Inflazio arrisku horri aurre egiteko Erreserba Federalak interes tasak igoko dituela ia ziurtzat ematen da. Iazko urtariletik, lau alditan igo ditu Greenspanek interes tasak eta lauretan puntu laurdenekoa izan da igoera. Une honetan %5,75ean dau-

Interes tasen balizko igorak gehienbat enpresa tradizionalei eragingo dienaren ustea atzo Wall Streeten islatu zen, industriako enpresa handien baloreak jasotzen dituen Dow Jones indizeak behe-
ra egin baitzuen, informatika eta teknologia berrietako enpresa nagusien Nasdaq indizeak gora egin zuen bitartean.

laburrean

■ Ibilbide enpresa elkarteko langileek greba egingo dute bi behargini ezarritako zigorren aurka

IBILBIDE enpresa elkarteko langileek greba egingo dute martxoaren 1ean, langileen ordezkari batek eta behargin batek segurtasun arriskuak salatzeagatik jasotako zigorren aurka protesta egiteko, ELA sindikatutik jakinarazi dutenez. Enpresa honek N-1 eta A-15 errepideen mantenimenduan lanean dihardu. Segurtasun arazoak salatu zituzten bi langile lantegiko komunak eta aldagelak garbitzera zigortu zituen lehenik. Gero, arrazoi beragatik, 11 egun lanik eta soldatarik gabe zigortu zuen ordezkari sindikala, eta harekin zihoan langileak bi eguneko zigorra jaso zuen. Zigorak guztien artean ordaintzea erabaki dute Ibilbideko 45 langileek. Segurtasunari dagokionez, ELAk azpimarratu du ikuskaritzak arazoak egiaztatu egin dituela.

■ Cementos Lemonak %58 gehitu ditu etekinak

CEMENTOS LEMONA enpresaren etekinak 1.802 milioi pezetara heldu ziren 1999. urtean, aurrekoan baino %58 gehiago, enpresako iturriek jakinarazi dutenez. Konpainiak 687.251 tona zementu eta *clinker* saldu zituen, haietatik 73.682 tona esportazioetara zuzenduta. Lemonak negozio atal guztien emaitzak hobetu zituen, batez ere EEBBetako CDN-USA enpresa filialarenak. Kapital soziala eurotara egokitu ostean, Cementos Lemonak 8.776.350 milioi euroko kapitala dauka, 11.701.800 akziotan banatuta. Akzio hauek Bilboko eta Madrilgo burtsetan kotizatzen dira.

■ Iberdrolak bi zentral termoelektriko eta hidroelektriko bat eraikiko ditu Brasilen

IBERDROLA enpresak 1.260 milioi erreal inbertituko ditu (710 milioi dolar inguru) Brasilgo ipar-ekialdean bi zentral termoelektriko eta hidroelektriko bat eraikitzen. Energia sortzeko hiru solairu hauek, 2.003 urtean, 1.150 negatibotako potentzia izatea ahalbidetuko diote Iberdrolari. Horietako bat eraikitzeko lanak martxan dira jada Itapebin, eta beste biak Vale do Sol-en eta Pernambuco estatuan eraikitzeko asmoa dute. Joan den astean gainera, Pernambuko Estatuko Energia Konpainiaren (CELPE) eskubideak bereganatu zituen Iberdrolak 1.000 milioi dolarren truke, eta ondorioz, Brasilgo ipar-ekialdeko energia banatzaile nagusia da egun. Zonalde txiroa da, baina Brasilgo biztanleriaren herena bizi da inguru horretan, 46 milioi pertsona guttira.

■ Biplax enpresa bizkaitarrak 1.700 milioi pezetatik gora fakturatzea espero du 2000. urtean

BIZKAIKO Biplax enpresak, 2000. urtean, 1.700 milioi pezetatik gora fakturatzea espero du. 1999an baino 115 gehiago. Bulegoetako aulkiak ekoizten ditu enpresa honek, eta aitzindaria da alor horretan. Negozioa indartzeko estrategia, esportazioaren gorakadan oinarritzen du Biplax-ek, eta horretarako banatzaile sare zabala du hainbat herrialdetan, Japonian, Frantzian, EEBBetan eta Holandan besteak beste. Produktuak ezagutarazteko nazioarteko hainbat erakusketetan parte hartzen du enpresa bizkaitarrak, eta atzo hasi eta otsailaren 29a bitartean, Ofitec erakusketan parte hartzen ari da, Altzari sektoreko feria garrantzitsuenetakoa da Ofitec eta bertan hiru produktu berri aurkeztu ditu Biplax-ek.


Burtsa

• J.B. ANDUEZA •

Midas erregeak

Lehen Espainiako erregea bakarra zen eta Juan Carlos izena zuen. Atzodanik errege mordoxka dago Espainian: Telefonicaren (+%2,19) zuzendaritzan Midas izeneko ehun bat bai. Atzo betetzen zen akzioen gaineko aukeren epea eta 490 milioi euro banatuko dituzte euren artean. Edurnezuri (Telefonica) musukatu eta urre bihurtu zaie, stock

options batzuk medio. REEko akziodunek ere %40 inguru irabazi zuten atzo, enpresa horrek bere zuntz optikozko sarea Netco Redesi alokatzeko aukera dagoelako. Bilbao 2000 indizeak maximo historikoa bizi du, tekno-akzioen erregetzarekin: monarkiazaleenak Sogecable (+%11,43), TPI (+%8,47) eta Terra (+%6,76) dira.



■ LA CAIXA Kataluniako aurrezki kutxa da Deutsche Banken bigarren akzioduna. Internet bidezko bankan aritzeko akordioa lortu du Alemaniako erraldoiarekin, BBVA eta Telefonicaren enbidoari (Uno-e bankuari) eutsiz.

■ ENDESAK (+%5,5) Gas Naturalek (+%3,82) argindarrik ez produzitzeko eskatu du, harik eta gasaren merkatua liberalizatu bitartean. Zozoak beleari...